21 DIC. ABE. - 1 ENE. URT.

18:30 - 21:30

# PROYECCIONES DE VIDEOARTE
# BIDEOARTE-PROIEKZIOAK

II Muestra de videoarte en diferentes espacios de Pamplona:

Teatro Gayarre, Calle Javier, Pasaje Francisco Seminario, Calle Hilarión Eslava, Rincón de Pellejerías, Portal de Francia, Baluarte Guadalupe y Palacio del Condestable.

COMISARIO ARTÍSTICO DE LA MUESTRA:
**Gonzalo de Pedro Amatria.**

Bideoartearen II. Erakustaldia, Iruñeko hainbat txokotan:

Gayarre antzokia, Xabier kalea, Francisco Seminario pasabidea, Hilarión Eslava kalea, Pellejerías zokoa, Frantziako Portalea, Guadalupeko bastioia eta Kondestablearen jauregia.

KOMISARIOA:
**Gonzalo de Pedro Amatria.**




## RINCÓN DE PELLEJERÍAS
## PELLEJERÍAS ZOKOA

**Los afectos** *(2017)* 7'
María Sánchez, España | Espainia

Tocar con la sombra. Un contacto imposible, ¿una pequeña muestra de cariño o una invasión de la intimidad?

Ukitzea, itzalaren bidez. Ezinezko kontaktua, maitasun-keinu arin bat edo intimitatearen inbasioa?

**Something Between Us** *(2015)* 10'
Jodie Mack, Estados Unidos | Estatu Batuak

Algo se interpone en nuestra mirada: ¿es la cámara, es un cristal? Juegos de luces, reflejos, y distorsiones que convierten un paisaje cotidiano en un viaje lumínico y sensorial.

Zerbaitek traba egiten du gure begiraden artean: kamera ote? Kristal bat? Argi-jokoak, islak eta distortsioak, eguneroko paisaia bat argi-bidaia sentsorial bihurtzen dutenak.

**Romance Reedit** *(2003)* 8'50"
Filipa César, Alemania

El juego de la seducción y las mentiras de la cámara y el montaje. Miradas que se encuentran, se buscan, se rehúyen. Historias de amor imposibles y fugaces.

Sedukzioaren jolasa eta kameraren eta muntaiaren gezurrak. Aurkitzen diren begiradak, elkar bilatzen dutenak, elkarrengandik ihesi doazenak. Ezinezko maitasun-istorio iheskorrak.

**Francis Bacon. Film Portrait** *(1996)* 1'47"
Peter Gidal, Reino Unido | Erresuma Batua

Un artista retrata a otro artista. Una cámara, una mirada sostenida. Bacon, la cámara, Gidal y nosotros, los espectadores, como los últimos observados.

Artista batek beste artista bat erretratatzen du. Kamera bat, begirada eutsia. Bacon, kamera, Gidal eta gu geu, ikusleok, behatutako azkenak.

## TEATRO GAYARRE
## GAYARRE ANTZOKIA

**Margeen** *(2017)* 2'30'' (loop de 7') (7 minutuko loopa)
Diego López Bueno, España | Espainia

Margeen es una youtuber que graba todos los videos con un singular efecto deformante y documenta, así, una versión imposible de un viaje realizado con su marido. Un autorretrato conscientemente, mentiroso e infinito.

Deformazio-efektu berezi bat erabilita grabatzen ditu bideo guztiak Margeen youtuberrak, eta hartara, senarrarekin egindako bidaia baten bertsio ezinezkoa dokumentatzen du. Kontzienteki gezurrezkoa den autorretratua, eta amaigabea.

**#BathroomSelfie** *(2016)* 0'15''
(loop de 3') (3 minutuko loopa)
Katie Torn, Estados Unidos | Estatu Batuak

Ella es Katie. Frente a un espejo. Y con un móvil.

Hauxe da Katie. Ispilu baten aurrean. Mugikor bat eskuan.

**B*RAIN** *(2008)* 12'39''
Beatriz Sanchez, España | Espainia

Una lluvia de ideas.

Ideia-jasa.

## CALLE HILARIÓN ESLAVA
## HILARIÓN ESLAVA KALEA

**La Pluie (Project pour un texte)** *(1969)* 2'30''
Marcel Broodthaers, Bélgica | Belgika

Un cuerpo bajo la lluvia y un proyecto imposible: escribir un texto con tinta china. La lucha contra los elementos, el absurdo, y un bucle tan infinito como el empeño y la voluntad.

Gorputz bat euripean eta ezinezko proiektu bat: testu bat tinta txinatarraz idaztea. Osagaien kontrako borroka, absurdoa, eta ahalegina eta borondatea bezain amaigabea den kiribila.

## BALUARTE GUADALUPE
## GUADALUPEKO BASTIOIA

**Vivir para Vivir / Live to Live** *(2015)* 11'48"
Laida Lertxundi, España, Estados Unidos | Espainia, Estatu Batuak

Las grabaciones del palpitar de un corazón femenino, y los sonidos de un orgasmo. El cuerpo como espacio de producción, como la puerta a algo invisible que siempre se escapa a la cámara.

Emakume baten bihotz-taupaden grabazioa, eta orgasmo baten hotsak. Gorputza ekoizpen-espazio gisara, kamerari beti ihes egiten dion gauza ikusezin horretara heltzeko ate gisa.

**Cilaos** *(2016)* 12'
Camilo Restrepo, Francia | Frantzia

Las películas también pueden ser como una canción punk: cortas, breves, rabiosas. Con la cantante de La Reunión Christine Salem, y su banda, Restrepo despliega un musical sobre las herencias postcoloniales, la figura paterna y la resurrección de los muertos.

Filmak ere punk kantak bezalakoak izan daitezke: laburrak, motzak, amorruzkoak. Réunioneko abeslari Chistine Salem eta haren bandarekin, Restrepok musikal bat sortu du hizpide hartuta kolonialismo-garaiak utzitako oinordetza, aitaren figura eta zendutakoen berpizkundea.

**House and Universe** *(2016) 3'45''*
Antoinette Zwirchmayr, Austria

Cuerpos que esperan, cuerpos que yacen. Un momento de paz, un instante de silencio.

Zain dauden gorputzak, etzanda. Bake une bat, isiltasun une bat.

## CALLE JAVIER
## XABIER KALEA

**Act of contrition** *(2003) 3'40''*
Anthony Goicolea, Estados Unidos | Estatu Batuak

Un elevador infinito y un artista que interpreta a todos los personajes, jóvenes afligidos en busca de consuelo en un confesionario que no cesa de moverse. La rueda infinita del pecado y el perdón.

Mugarik gabeko igogailu bat eta artista bat, pertsonaia guztiak hezurmamitzen dituena: kontsolamendu bila dabiltzan gazte atsekabetuak inoiz gelditzen ez den aitorleku batean. Bekatuaren eta barkazioaren gurpil amaigabea.

**Me duele el chocho** *(2002) 3'*
Valeriano López, España | Espainia

La frase de Miguel de Unamuno, "Me duele España", repetida hasta el infinito por los habitantes del depauperado barrio de Las Cuevas, en Huesca (Granada). Humor, políticas de clase, identidades, y cuestionamientos.

Miguel de Unamunoren "Me duele España" esaldia behin eta berriz errepikatzen dute Huescako (Granada) Las Cuevas auzo txiroko herritarrek. Umorea, klase-politikak, identitateak eta zalantzan jartzeak.

**Vigile le estamos sonriendo** *(2008) 2'*
Rogelio López Cuenca, España | Espainia

Reescritura, en tono satírico, de la omnipresente frase del panóptico contemporáneo: "Sonríe, le estamos vigilando". Hiper-control, e hiper omnipresencia de sonrisas que nos manipulan a voluntad.

Nonahi ageri den "Egin irri, zaintzapean zaude" esaldi garaikide panoptikoaren berridazketa satirikoa. Hiperkontrola eta nahieran manipulatzen gaituzten irribarreak nonahi.

## PASAJE SEMINARIO
## SEMINARIO PASABIDEA

**Deorbit** *(2013)* 17'30'' Makino Takashi & Telcosystems, Japón, Países Bajos | Japonia, Herbehereak

Un viaje por el universo entero, desde el infinito espacial al grano microscópico de la película de 35mm. Paisajes, desiertos, montañas, un fin que encuentra a otro fin.

Bidaia bat unibertso osoan barna, espazioaren infinitutik 35mm-ko pelikularen garau mikroskopikoraino. Paisaiak, basamortuak, mendiak, beste amaiera bat topatzen duen amaiera.

## PORTAL DE FRANCIA
## FRANTZIAKO PORTALEA

**Da Janela do Meu Cuarto** *(2004) 5'*
Cao Guimaràes, Brasil

Un baile bajo la lluvia, una pelea, un juego, dos niños en el barro y la cámara de Super 8 de Cao Guimaràes para registrar esa danza ancestral, ese canto al futuro.

Dantza bat euripean, liskar bat, jolas bat, bi haur lokatzetan eta Cao Guimaràesen super 8-ko kamera grabatzeko antzinako dantza hori, etorkizunera kanta ere badena.

## CIVIVOX CONDESTABLE
## KONDESTABLE CIVIVOXA

*Sala Gótica | Areto gotikoa*

**Good Luck (Portraits)** *(2017) 48'42''.*
Ben Russell, Francia, Alemania | Frantzia. Alemania

Bajo tierra, en una mina de cobre en Serbia, o a pleno sol, en una mina ilegal de oro de Surinam. Realizada al estilo de los Screen Tests de Andy Warhol, los trabajadores hacen una pausa en su jornada y deciden enfrentarse a la cámara, en una filmación que solamente ellos controlan.

Lur azpian, Serbiako kobre-meatzetan, edo egun argian, Surinameko urre-meatze ilegal batean. Andy Warholen Screen Tests lanaren estiloari jarraiki, langileek atseden hartzen dute lanaldian eta kameraren aurrez aurre jartzea erabaki, haiek besterik kontrolatzen ez duten filmazio batean.

MUESTRA DE VIDEOARTE
BIDEOARTE ERAKUSTALDIA

Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

# OTRAS PEQUEÑAS LUCES
# BESTELAKO ARGI TXIKIAK

Barrio / Auzoa: Txantrea

## Taller de cine efímero

Creación de cine portátil, instantáneo, callejero.

21 - 29 diciembre

¿Existe un cine portátil, instantáneo, callejero? ¿Un cine pequeño que quepa en la palma de la mano? ¿Un cine cercano que no salga del perímetro de nuestro barrio? Este Taller de Cine Efímero, ideado y realizado por el cineasta Oskar Alegría, pretende contagiar a jóvenes (14 a 18 años) de un barrio de la ciudad, del cine más espontáneo y lúdico, con películas que puedan realizar en las mismas calles en las que viven, y que será proyectado en diversas pantallas encontradas al azar cerca de su barrio: una pared blanca, una sábana tendida, el lomo de un caballo, una valla de publicidad vacía, la lona de un camión. Desarrollado en el barrio de la Txantrea, en esta su primera edición, este taller ofrece pasar por todas las fases del cine: producción, localización, filmación, edición... hasta llegar a la proyección en un paseo final por esas pantallas encontradas donde se mostrará al público la conclusión de los trabajos. Una noche de cine efímero, en busca de otros cines donde proyectar películas que nacen al mismo tiempo que desaparecen.

## Zinema iraungikorreko lantegia

Bat-bateko zinema eramangarri eta kalekoaren sorkuntza.

Abenduak 21 - 29

Ba al da kaleko zinema eramangarri eta bat-batekorik? Esku-barrenean gordetzeko moduko zinemarik? Gure auzoaren perimetroa gainditzen ez duen gertuko zinemarik? Zinema iraungikorreko lantegi honek, Oskar Alegria zinemagileak pentsatua eta emana, xede du hiriko auzo jakin bateko 14 eta 18 urte bitarteko gazteei kutsatzea bat-bateko zinema ludikoarekiko grina, bizileku dituzten kaleetan bertan egin ditzaketen filmen bitartez, zeinak auzotik gertu ustekabean topatutako pantailetan proiektatuko baitira: horma zuri batean, esekitako izara batean, zaldi baten bizkarrean, hutsik dagoen publizitate-hesi batean zein kamioi baten olanan.

Lehenengo edizio honetan Txantrean egingo den lantegiak aukera emango du zinemak barne hartzen dituen fase guztietatik igarotzeko: produkzioa, lokalizazioa, edizioa... eta azkenik, proiekzioa, paseoan topatutako pantailetan, non ikusleei erakutsiko baitzaizkie egindako lanen ondorioak.
Zinema iraungikorreko gau bat beste zinema-toki batzuen xerka, non aldi berean jaio eta desagertu egiten diren filmak proiektatu daitezkeen.

## Encendido en kalejira

Proyección de las creaciones por el barrio de la Txantrea.

30 de diciembre. 18:30 - 21:30.

## Piztu kalejira!

Sorkuntzen proiekzioak Txantrean barna.

Abenduak 30. 18:30 - 21:30.

# TALLERES INFANTILES DE VIDEOARTE
# HAURRENDAKO BIDEOARTE-LANTEGIAK

## Taller de videoclip casero

Buhardilla de la Sala de Armas (Ciudadela).
Imparte Beatriz Sánchez, videoartista y dibujante.

27 - 29 diciembre. 11.00 a 13:00 horas.

Inscripciones a través del teléfono 010 (948420100 para llamadas desde fuera de Pamplona). 5 € los tres días. Edad recomendada: 7 a 14 años.

A través de una webcam y una serie de materiales sencillos (revistas, tijeras, lápiz, cartulinas de color, muñecos, etc...), los y las asistentes construirán su propia historia o no-historia y desarrollarán vídeos en directo. El surrealismo, lo absurdo y pasarlo bien es la filosofía.

A través del movimiento de manos, jugarán con títeres de papel, collages, juguetes, cambios de escenarios, de elementos y sorpresas que van aconteciendo en directo mientras la webcam proyecta el set de grabación.

## Etxeko bideoklip bat sortzeko lantegia

Arma Aretoko ganbara (Ziudadela). Nork emana: Beatriz Sánchez, bideoartista eta marrazkilaria.

Abenduak 27 – 29. 11:00 – 13:00

Izen-emateak 010ean (948420100 zenbakian, Iruñeaz kanpotik deituz gero). 5 € hiru saioendako. Nori zuzendua: 7 eta 14 urte bitartekoei.

Webkam bat eta erraz topa daitezkeen materialak erabilita (aldizkariak, guraizeak, arkatza, koloretako kartoi-meheak, panpinak, eta abar) partaideek beren istorioa edo ez-istorioa eraikitzen ahalko dute, eta zuzeneko bideoak egin. Surrealismoa, absurdoa, eta ongi pasatzea! Horra lantegiaren filosofia!

Eskuak mugituta, paperezko txotxongiloekin jolastuko dira, collageekin, jostailuekin, eszenatoki- eta osagai-aldaketekin eta zuzenekoak ekartzen dituen sorpresekin, hori guztia webkamak grabazio set-a proiektatzen duen bitartean.

## Taller de teatro de papel animado

Buhardilla de la Sala de Armas (Ciudadela).
Imparte Mila García, ilustradora especializada en "paper cut".

2 - 4 enero. 11.00 a 13:00 horas.

Inscripciones a través del teléfono 010 (948420100 para llamadas desde fuera de Pamplona). 5 € los tres días.

Si te gusta inventar historias y construirlas, no te pierdas esta aventura. Crearemos un teatro de papel que luego grabaremos. Dirigido a niños y niñas de entre 7 y 14 años que les guste crear, inventar, construir y jugar. El taller tiene como objetivo que los alumnos exploren a través de su propia experiencia el concepto de memoria / olvido de forma muy visual, fácil y divertida. El taller constará de tres partes. Los y las asistentes se convertirán en guionistas, decoradores de escenarios y diseñadores de personajes de papel. La idea es crear un ambiente como si estuvieran primero entre bambalinas ideando todo el montaje y después en un rodaje.

## Paper animatuko antzerki-lantegia

Arma Aretoko ganbara (Ziudadela). Nork emana: Mila García, paper-cut delakoan espezializatutako irudigilea.

Urtarrilak 2 - 4. 11:00 - 13:00

Izen-emateak 010ean (948420100 zenbakian, Iruñeaz kanpotik deituz gero). 5 € hiru saioendako.

Istorioak asmatu eta eraikitzea gustuko baduzu, ez galdu abentura hau! Paperezko antzezlan bat sortuko dugu, eta gero, grabatuko. Sortzea, asmatzea, eraikitzea eta jolastea atsegin duten 7 eta 14 urte bitarteko haurrendako. Lantegiaren helburua da ikasleek nork bere esperientzia propioaren bidez esploratzea oroimena / ahanztura kontzeptua, betiere modu bisualean, errazean eta dibertigarrian. Lantegiak hiru atal izango ditu. Parte-hartzaileek gidoigile, eszenatoki-dekoratzaile eta paperezko pertsonaien diseinatzaile bihurtuko dira. Asmoa da eszenatokiaren atzealdean muntaia osoa prestatzen egon ohi den giroa itxuratzea lehenbizi, eta gero, filmazioan dagoena.

## Carabí-carabá, cierra los ojos y verás

Planta Baja de la Sala de Armas (Ciudadela).

27 - 29 diciembre y 2 - 4 enero. 17:30 a 19:30 horas.

Entrada libre hasta completar aforo.

Talleres creativos con artistas locales en torno al aspecto lúdico del arte, dirigidos a todos los públicos, de 0 a 100 años. Los y las participantes tendrán la oportunidad de realizar un trabajo artístico en contacto directo con los y las artistas y conocer su obra.

## Karabi-karaba, itxi begiak eta... Hara!

Arma Aretoko beheko solairua (Ziudadela).

Abenduak 27 - 29 eta urtarrilak 2 - 4. 17:30 - 18:30

Sarrera librea, leku guztiak bete arte.

Sormen-lantegiak tokiko artistekin, artearen ezaugarri ludikoari buruz, edozein adinetako lagunendako, 0 urtetik hasi eta 100 urtera bitarte. Parte-hartzen dutenek aukera izango dute lan artistiko bat gauzatzeko artistekin harreman zuzenean, eta beren obra ezagutzeko.

# BUMAYE!

## Espectáculo de música en directo y videoarte con Cabezafuego y Beatriz Sánchez

Fachada trasera del Teatro Gayarre

28 diciembre. 20:00 horas

Show musical con proyecciones en directo, donde la improvisación y el humor son protagonistas absolutos.
La música troncal del espectáculo son las canciones de Cabezafuego, a las que la artista multimedia y dibujante, Beatriz Sánchez, pone imágenes improvisadas en directo. La técnica que utiliza es collage, dibujo, pintura, escultura… elementos que se combinan entre sí y que son recogidos a través de una webcam dirigida a su mesa de trabajo.

## Zuzeneko musikako eta bideoarteko ikuskizuna, Cabezafuego eta Beatriz Sánchezen eskutik

Gayarre antzokiko atzealdeko fatxada.

Abenduak 28. 20:00

Ikuskizun musikala zuzeneko proiekzioekin, non inprobisazioa eta umorea baitira protagonista erabatekoak. Cabezafuegoren abestiak dira ikuskizunaren musika nagusia, zeinari Beatriz Sánchez multimedia artista eta marrazkilariak zuzenean erantsiko baitizkio bat-batean sortutako irudiak. Hainbat teknika erabiltzen ditu, collagea, marrazkia, pintura, eskultura eta abar, horiek elkarrekin nahasten ditu eta haren lan-mahaira enfokatutako webkam baten bitartez jasotzen dira.

# LE SOUVENIR D'AVA

## Vídeo-mapping

Animación sobre la fachada de la Sala de Armas (Ciudadela). Creación de Ángel Sandimas.

27 - 30 diciembre. 18:00 - 20:30 horas. Pases cada media hora.

*Le souvenir d'Ava* es un viaje en el tiempo y el espacio.
Ava buscará incansable algo que nunca estuvo realmente lejos. Nostalgia, amistad, aventura y fantasía se unen en un espectáculo de luz y sonido que consigue transportarnos hasta el lugar donde viven los recuerdos de Ava.

## Bideo-mappinga

Animazioa Arma Aretoko fatxadan (Ziudadela).
Ángel Sandimasen sorkuntza.

Abenduak 27 – 30. 18:00 – 20:30. Emanaldiak ordu erdiro.

*Le souvenir d'Ava* denboran eta espazioan barnako bidaia bat da. Avak sekula urruti egon ez den zerbait bilatzen du, nekaezin. Nostalgiak, adiskidetasunak, abenturak eta fantasiak bat egiten dute argi- eta soinu-ikuskizun honetan, zeinaren bitartez Avaren oroitzapenak bizi diren tokira bidaia egingo baitugu.

DL / LG NA 2340-2016

# otras luces
# bestelako argiak



21 DIC. ABE.
-4 ENE. URT.